

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004ko ekainaren 11a / 588. zenbakia



Bergara dantzara!

Egun osoko
erromeria
zapatuan

ETXE BEHEAK: ETXEBIZITZA BIHURTZEKO ARAUDIA/4 • MUSIKA ESKOLA: KONTZERTUA DOMEKAN/13

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 4**
MOZOS, Iparragirre 2. 943 76 12 15
- ZAPATUA, 5**
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74
- DOMEKA, 6**
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74
- ASTELEHENA, 7**
ZABALA, Barrenkalea 25. 943 76 16 87
- MARTITZENA, 8**
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05
- EGUAZTENA, 9**
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63
- EGUENA, 10**
MOZOS, Iparragirre 2. 943 76 12 15

TELEFONO JAKINGARRIAK

- OSASUNA / LARRIALDIK**
- Anbulatorioa (txanda) 943 03 54 00
- Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
- Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
- Ertzaintza 943 53 47 20
- Osasun etxea 943 76 24 40
- Asepeyo 943 76 16 43
- Pakea 943 76 13 49
- Angiozarko medikua 943 78 90 27
- Antzuolako medikua 943 76 62 23
- Odol emaleak 943 76 16 24
- Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

- GARRAIOAK**
- Taxiak 943 76 19 50

- UDALA**
- Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
- Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
- Udal Artxiboa 943 77 91 32
- Igerilekuak 943 76 20 51
- Kultura etxea 943 77 91 58
- Liburutegia 943 77 91 62
- Kiroldegia 943 76 56 41
- Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

- BESTELAKOAK**
- Epaitegia 943 76 14 92
- Erregistroa 943 76 13 15
- Jardun 943 76 36 61
- Idolaz 943 76 65 08
- Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40
- Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
- Postetxea 943 76 26 85
- Bedelkar 943 76 04 68
- Akulu AEK. 943 76 05 18
- Udal Euskaltegia 943 76 44 53
- Bergarako notarioa 943 76 10 73

MEZAK

- | | |
|--|--|
| San Pedro
Domekak:
09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak:
19:00. | Labegarieta
Domekak: 11:00.
San Lorentzo
Zapatuak: 20:00.
Angiozar
Domekak: 11:00. |
| Santa Marina
Domekak:
10:30, 13:00.
Zapatuak:
19:00. | Moja Zaharrak
Lanegunak: 08:00.
Mizpirualde
Lanegunak: 11:45.
Zapatuak: 17:30. |
| Sierbak
Lanegunak: 19:30 | Antzuola
Domekak:
09:00, 11:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:30. |
| Osintxu
Domekak: 12:00. | Uzarraga
Domekak: 10:00. |
| Elosu
Domekak: 11:00. | Elgeta
Lanegunak: 09:00.
Zapatuak: 19:30. |
| Ubera
Domekak: 10:30. | San Juan
Domekak: 11:00. |
| San Juan
Domekak: 11:00. | Elorregi
Domekak: 10:30. |

- URTE-MEZAK**
- Santa Marina**
Hileko bigarren domekan,
10:30ean eta 13:00etan.
- San Pedro**
Hileko hirugarren domekan,
09:30ean eta 12:30ean.

OHARRAK

1942AN JAIOTAKOEN AFARIA
1942an jaiotako enafaria ekainaren 12an Azpeitxi jaiatzean, 21:00etan. Aurretik meza izango da Santa Marinaran, 19:00etan.

1966AN JAIOTAKOEN AFARIA
1966an jaiotako enafaria ekainaren 19an Sirimiri jaiatzean. Izenematea (10 euro) Ariznoa tabernan.

1960AN JAIOTAKOEN AFARIA
1960an jaiotako enafaria ekainaren 19an Azpeitxi jaiatzean. Izenematea (15 euro) Kutzaren 2101 0070 8201 2453 8943 kontuan.

ODOL ATERATZEA
Hurrengo odol ateratzea ekainaren 23an izango da, Seminarioan, 18:30ean hasita.

POL-POL ETA GORLA ALPINOREN IRTEERA
Pol-Pol eta Gorla Alpino taldeek ekainaren 26 eta 27rako bi eguneko irteera antolatu dute, Luchon eta Benasquera. Txartelak Pol-Poleko bulegoan eskura daitezke, ekainaren 17ra arte. Argibideak 943 76 48 51 telefono zenbakian.

JARDUNEN AGENDA

JOLASLEKU IBILTARIA
Gaur, egubakoitza, Lehen Hezkuntzako neska-mutiko-ei zuzendutako jolasleku ibiltaria izango da Frontoian, 17:00etatik 19:00etara.

OLINPIADAK
Jardunek antolatutako olinpiaden jardunaldia izango da bihar, zapatua, erretiratuen egoitzan, 16:00etan. Bolo, toka eta igela probak jokatu dira.

KANTU LIBURUXKAK
Euskal kantuen liburuxkak salgai Pol-Polen, Kortazarren eta Jarduneko bulegoan, bi euroren truke.

URBANOEN ORDUTEGIA

- San Lorentzo / San Juandik irteerak**
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Sorluz aurrean), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jaiatzea.
- Labegarieta / Olabarrenetik irteerak**
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arruriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10 URTE BERRIGARAN

Artzamendiko etxebizitzentzako giltza banaketa

1994ko ekainaren 9an, Artzamendin egin berri ziren etxebizitzentzako sozialetako jabeen giltzak eman zizkien Jose Antonio Maturana Etxebizitza eta Hirigintza sailburuak eta Victoriano Gallastegi alkateak. 28 etxebizitza sozialez gain, babes ofizialeko beste 40 egin ziren Artzamendin.



BERTAKO BERBAK / Juan Martin Elexpuru

"Korda"



Ristra.
— Kordak eñ da txintxiliz laga berakatzak.

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA Egubakoitza, 4	7 °C
MAXIMOA Martitzena, 8	32 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	14,9 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 2	25 °C	15 °C	- l/m ²
Eguena, 3	23 °C	14 °C	- l/m ²
Egubakoitza, 4	25 °C	7 °C	- l/m ²
Zapatua, 5	28 °C	8 °C	- l/m ²
Domeka, 6	31 °C	10 °C	- l/m ²
Astelehena, 7	32 °C	14 °C	- l/m ²
Martitzena, 8	32 °C	16 °C	14,9 l/m ²

San Juan auzoan jasotako datuak

GOGORATZEKOA

'AZUR'-EN ARGAZKIAK

Azur-en argazkiak ikusgai daude egunotan Artekale pizzerian. Hamahiru lanek osatzen dute erakusketa; herriko kale zein natura-guneen irudiak tar-tekatzen dira erakusketan. Horietako asko gauz ateratako argazkiak dira. Bergarako hainbat txokoren ikuspegi pertsonala eskaintzen digu Azur-ek. Erakusketa ekainaren amaierara arte izango da ikusgai Artekale pizzerian, izen bereko kaleko lehen zenbakian, hain zuzen.



BERGARA MARGOAK



Kalitatea eta zerbitzua.

Amillaga 1, 1 pabilioia, goiko solairua. 162 posta kutxa, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31 Faxa: 943 76 97 32. bergara.margoak@terra.es

ATREBENTZIAEZPADA/ Zergatik uste duzu erromerietako giroa jaitsi egin dela?



FATIMA JIMENEZ
18 urte

Gauzak asko aldatu dira, eta oraingo gazteak ez dira erromerietara joaten. Jaie-tan-eta jende gehiena taber-netan sartuta egoten da. Nahiago izaten dute taber-nan egon kalean baino.



MIKEL GIL
33 urte

Gazteak tabernetara joaten dira eta ez dira erromerian egoten. Baina helduendako ere ez dute gauza handirik egiten; izan ere, ekartzen dituzten musika taldeak ez dira onak izaten.



ERRITXE BARRENETXEA-ARANDO
78 urte

Ohiturak aldatu egin dira eta erromeriak ere geroz eta gutxiago egiten dira. Orain tabernetan dago giroa. Lehen gustatzen zitzaidan erromeria, baina orain zaharregia naiz.



MARIJO FRAGO
36 urte

Guztiok oso komodo bihurtu gara eta tradizioetatik paso egiten dugu. Erromeriek giroa pizten dute herrian, baina niri ez zait dantza egitea askorik gustatzen.



IÑAKI UMEREZ
49 urte


Orain beste moda batzuk daude eta ohiturak asko aldatu dira; pena handia ematen di horrek. Erromeriak asko gustatzen zaizkit, baina ez naiz askotan joaten.



ASUN ZENITAGOIA
45 urte

Beste ohitura batzuk daude orain; gazteak tabernetan ibiltzen dira eta beranduago irteten dira. Niri ez zaizkit erromeriak gustatzen, nahiago izaten ditut rock kontzertuak.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK GORLAKO IGOERAKO ANTOLATZAILEEI Gorlako Auto Igoerako antolatzaileak zoriontzeko deitu zuen irakurle batek astelehenean. Gorla aldean buelta bat ematen ibili zela eta errepidea eta ingurua garbi-garbi aurkitu zituela esan zigun. Beste urte batzuetan kekak izan dira goeraren ondorioz Gorla ingurua zikin egoten zela. Oraingoan, beharrezko neurriak hartu dituzte antolatzaileek. /E.M.

ETABARRUAN...

ASTEKO /4

Etxe behean araudia

Etxe beheak etxebizitza moduan erabili ahal izateko araudia onartu du Udalak.

KIROLA /8

Herriko igerilariak

Bergara Igeri Elkartek emaitza onak lortu zituen Euskadiko Eskola Arteko Txapelketan.

KULTURA /13

Udaberriko kontzertua

Musika Eskolak Udaberriko kontzertuaren 20. ekitaldia egingo du domeka eguerdian.

ASTEKODATUA

500

DANTZARI ELKARTUKO DIRA ZAPATUAN BERGARAN

Bergara dantzara! erromeria izango da bihar, zapatua, egun osoz. Antolatzaileek 500 dantzari inguru elkarrin nahi dituzte, eta garai bateko erromerietako giroa berreskuratu.

BESTEKEESANA

“

Juan Luis Bikuñak Elosuko historia idatzi du; hobe esanda, Elosuko historia asko idatzi

ditu, frantsesek, gerra galduan atzeraka zetozerarik, utzitako urrearena esaterako. Haren bila zulatuta omen zuten frantses basoa eta han zeuden harriak denak txikitu. Baina hori kondaira besterik ez da, beste batzuen antzekoa. (...) Elosuko historia, dena dela, ez da beste auzo batzuen arras desberdina. Elosuko baserrietako jendearen gorabeherak ere badakartza egileak, nor norekin ezkondu zen eta zer izan zen gero haietaz, benetako dokumentuak oinarritzat hartuz. Joan eta etorri egin zen jendearen emana, historia bizia, hori gabe paisaia zerbait huts baita: zerbait huts eta alferrikakoa. Historiari zentzua ematen baitiote”
FELIPE JUARISTI / Idazlea
El Diario Vasco/04-06-04

BERAIEKDIÑOÈ/ Lander Juaristi



Jaixetako bixamona

Jaia amaitu ziren, eta beste behingoz kolektiboen arteko elkarlanak gune berezi bat eraiki du Pazkoetako bihotzean; baltsa jaitsiera, bertsolari, aldarrikapenak, kontzertuak, *batukadak* bat egin dute txosna gunean! Bagoaz bidea eraikitzen! Eta asteazkenean jai guzti honen *bixamona*, zakar mordo bat, trago bakar baten mesedetan zakarretara botatuko plastikoa, kontsumo absurdoa... Aldarrikapen eta jaiaz gain kontsumo tentelak ere txosna gunean lekua izan duela onartu behar.

Kontsumoa, betidanik egon izan da gizakion baitan. Gaur bizi dugun gizartean kontsumitu beharra dago izateko, sistemarentzat ez gara gizaki, kontsumitzaile potentzial baizik. Absurdoan oinarritutako kontsumoa da erlijio berria, dirua da jaingo eta bere inguruan egiten dugu dantza. Saldu, erosi, lan egin, ordu estrak, dantza kapitalismo eta diruaren suaren beroan, goxo, goxo!

Diruaren eta kontsumoaren erlijioak, bere mezua zabaltzeko tresna ugari erabiltzen ditu; telebista eta *mass-mediak* dira nagusiak, produktuez gain bizitzeko modu bat saldu digute, dibertitzeko, amesteko... Plastikozko zoriontasun hau lortzeko milioika pertsonen txirotasun erreal eta odoltsu bat jasaten dute.

“Absurdoan oinarritutako kontsumoa da erlijio berria, diruaren inguruan egiten dugu dantza”

Baina ez larritu, ez pentsatu! Dantza egin beharra dago, kontsumismoaren erritmo biziak trantzean jartzeko gaitu, kreditu txartelarekin eros dezakegu. Triste baldin bagoaude, beti

izango dugu saltzaile baten irribarrea gu alaitzeko. Dirurik ez dugula? Lasai, bankuek gure etorkizuna erosiko digute...

Baina zer gertatuko litzateke dantza egiteri utzi eta pentsatuko bagenu? Galdetu gure buruari erosten duguna non ekoiztu den, ados al gauden berau lortzeko egin diren injustiziekin. Benetan behar al dugu telebistan saldu digutena? Kontsumo justu eta inteligentekoago bat bilatuko bagenu?

Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Aintzane Irizar
Usoa Agirre
Irati Agirreazaldeg
MAKETAZIOA
Maitena Arana

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
SS-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Bergarako
Udala



Antzuolako
Udala



Elgetako
Udala

HIRIGINTZA/ Etxebizitzak eskuratzeko herritarrek dituzten zailtasunei aurre egin nahi die Udalak onartu berri den araudiarekin

Etxe beheak etxebizitza moduan erabiltzeko araudia onartu du Bergarako Udalak

EDU MENDIBIL

Herriko etxe beheak etxebizitza moduan erabili ahal izateko araudia onartu berri du udalbatzak. Gaur egun etxebizitza duin bat eskuratzeko diren zailtasunak dira araudia indarrean jartzeko arrazoietako bat.

Azken urteotan etxebizitzaren prezioak izan duen gorakada kontuan izanik, eta biztanleriak etxebizitza bat eskuratzeko dituen zailtasunak jabetuta, Bergarako Udalak etxe beheak etxebizitza moduan erabiltzeko araudia onartu berri du. Azkenaldian gai horren gaineko hainbat kontsulta jaso dituzte udalbatzak eta etxebizitzaren arazoari irtenbideak topatzea da Udalaren helburuetako bat. Hori dela eta, Arrasaten gertatu bezala, etxe beheak etxebizitza bihurtzeko baldintzak arautu berri ditu udalbatzak. Aipatutako araudiaren iraupena, hasiera baten, hiru urtekoa izango da.

LOKAL DEZENTE HUTSIK

Udalean oraindik ez daukate etxe behean erroldarik egina, baina batez ere azken urteotan egindako etxebizitza berrietan lokal dezente hutsik daudela adierazi dute. Edozelan ere, edozein etxe



Etxe beheak etxebizitza moduan erabili ahal izateko hainbat baldintza betetzea derrigorrezkoa izango da.

behe ezin izango da etxebizitza moduan erabili. Horretarako, hainbat baldintza betetzea derrigorrezkoa izango da. Edozein argi-

bidetarako Udaleko Hirigintza Zerbitzura jo dezakete interesatuek.

Esandako moduan, lokalen jabeek Udalera jo beharko dute,

lokalaren erabilpen aldaketarako lizentzia eskatzeko. Txosten teknikoaren bidez, lokala etxebizitza bat kokatzeko egokia den

ala ez baloratuko du Udaleko Zerbitzu Teknikoak. Ondoren, txostena aldekoa izanez gero, hitzarmena sinatuko lukete Udalak eta lokalaren jabeak. Jarraian, merkaturatze prozesua Udalaren esku egongo da. Hiru hilabetetik behin gutxienez, lokalen zerrrenda plazaratuko du Udalak eta, era berean, lokalak eskuratzeko interesa duten herritarrekin erregistroa osatuko du Udalak. Gutxienez, urtebetez Bergaran erroldatuta egotea eskatuko zaie interesatuei izena eman aurretik.

ZOKKETA BIDEZ

Aipatutako udal erroldan izena emandakoen artean zokketatuko dira lokalak, ordenantza honen arabera aurrez ezarritako prezioan. Zokketa publikoa izango da, notarioa aurrean dela. Beti ere, babes ofizialeko etxebizitzaren prezioa hartuko da erreferentzia gisa prezioa zehazteko orduan. Prezioa tasatua izatea eta Udalak bitartekari lanak egitea espekulazioari aurre egiteko neurriak dira.

Udaletik azpimarratzen dutenez, "etxebizitza duina edukitzeko pertsona orok duen eskubidea gautzeko, botere publikoek neurri egokiak hartu beharra exijitzen du. Hainbat etxe behe jarduerarik gabe daude gaur, etekinik ateratzen ez zaien aktiboak dira. Ea probetuzko erabilpena ematen diegun".

Etxez etxeko zerbitzuko langileek grebak egin dituzte

E.M.

Etxez etxeko zerbitzuan lanean diharduten Gizaintza SLko langileek greba egin zuten astelehenean eta martitzenean. Datorren astelehena eta martitzenerako ere greba deialdia egin dute langileek.

Gaur egun, Bergarako Udalak azpi kontratatutako Gizaintza SL enpresan 29 langilek dihardute. Soldatan %6,6ko igoera (soldata

gordin altuena 888 eurokoa da), urteko lan jarduna 21 ordutan murriztea eta bajak ordaintzea eskatzen dute langileek. Astelehenean zehar elkarretaratzeak egin dituzte San Martin plazan eta auto karabanak ere atera dituzte, protesta egiteko. Udalak 1995etik dauka azpi kontratatuta etxez etxeko zerbitzua, azken urteotan Gizaintza enpresarekin. LAB sindikatuak dauka Gizaintzako langileen ordezkaritza.



Gizaintza SLko langileek elkarretaratzea egin zuten martitzen eguerdian.

Otaba jaiak ospatuko dituzte Elosun zapatutik astelehenera bitartean

E.M.

Otaba jaiak ospatuko dira Elosun aste bukaeran. Bertako Elurtxiki elkarteak hainbat ekitaldi iragarri ditu datozen egunotarako.

Bihar, zapatua, etxafuego jaurtiketarekin eta kanpai hotsekin jaiak hasiko dituzte, 17:00etan. Jarraian neska-mutikoei zuzendutako jolasak izango dira eta 18:00etan txokolate jana. Gauean, berriz, bertso afaria izango da Ixaun sagardotegian. Besteak beste, Joxe Agirre eta Irazu bertsolariak eta Lutxurdio eta Aitziber soinu joleak izango dira zapatuan Elosun. Bertso afarirako izenematea Ixaun sagardotegian bertan egin daiteke, 943 85 32 50 telefono zenbakian.

HERRI KIROLAK DOMEKAN

Domekan, Meza Nagusia izango da 11:45ean eta jarraian, 12:30ean pilota partiduak jokatu dira. Ondoren herri kirol jaia izango da, Flores eta Bihurri aizkola-



Auzo bazkaria eta auzo afaria egingo dituzte elosuarrek astelehenean.

riekin eta Goenatxo eta Elosu-Korta harrijasotzaileekin. Lutxurdio eta Aitziber trikitilariak alaituko dute giroa eguerdi partean.

Azkenik, astelehenean, hilaren 14an, auzoko hildakoen alde-

ko meza izango da 13:00etan eta meza ostean txorizoa eta alda banatuko dituzte. Soinujoleak arituko dira egun osoz eta auzotarrek lagunartean bazkaldu eta afalduko dute, Elurmendiko elkartean.

OSASUNA / Mizpirualdeko langileak Oteic aholkulari enpresarekin elkarlanean izan dira azken hilabeteotan

Kalitate ziurtagiria jaso du Mizpirualde Egoitzak, DNV erakundearen eskutik

EDU MENDIBIL

Mizpirualde Egoitzak ISO 9001-2000 ziurtagiria jaso zuen astelehenean, DNV (Det Norske Veritas) Bilboko erakundearen eskutik. Oteic aholkulari enpresarekin lanean izan dira Mizpirualde langileak 2003ko irailetik aipaturako ziurtagiria jasotzeko.

Besteak beste, Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea, Arantzazu Amasorrain, Juanjo Arrieta eta Iñigo Iñurrategi zinegotziak, Gregorio Iruretagoiena Mizpirualdeko zuzendaria, eta Elgeta zein Antzuolako udaletako ordezkariak izan ziren ekitaldian.

Victoriano Gallastegik poza azaldu zuen Mizpirualdeko ziurtagiria jasotzeagatik: "Parte hartu duten guztiak zoriondu nahi ditut, lan funtzionamendua hobetzeko interesa eta nahia azaldu dutelako". Bestalde, Jorge De Miguelek,

DNV erakundearen izenean, ziurtagiria jasotzea Mizpirualden lan egiten duten guztiendako errekonozimendua dela adierazi zuen: "Lan gestioa neurtu ahal izango da aurrerantzean eta horrek etengabeko hobekuntza ekarriko du atzetik. Horrelako erresidentzia baten dagoen osagarri emozionala ezin da alde batera laga, pertsonekin ari garelako lanean". Mizpirualden 45 langilek dihardute lanean gaur egun eta guztiek izan dute inplikazioa ziurtagiria jasotzeko prozesuan.

MODULU PSIKOGERIATRIKOA

Mizpirualde egoitzan 115 plaza daude, guztiak beteta. Horieta, 85ek mendekotasun maila handia daukate. Mendekotasun psikologiko altua duten egoiliarrei bereziki zuzenduta, modulu psikogeriatrikoa jarriko dute abian datozen hilabeteotan. Bertan, mendekotasuna duten 20 laguni arreta berezia eskainiko diete.



Victoriano Gallastegi alkateak DNV erakundearen Jorge De Miguelek jasotzen duen 9001-2000 kalitate ziurtagiria.

Udaleko langileak, lehen lanuzteak egin dituzte

E.M.

Udaleko Enpresa Komiteak deituta, udal langileek ordu eta erdiko lanuzteak egin dituzte joan den egubakoitzean eta gaur, ekainak 11. Udal eta Foru langileen laneko harremanak EUFALBA hitzarmenak arautu izan ditu azken 20 urteotan. 2002an, ordea, ez zen adostasunik egon sindikatu eta EUDELaren artean hitzarmena sinatzeko orduan. Udaleko Enpresa Komitearen arabera, akordioarik ez zegoela eta, alderdi politikoaren artean (EAJ, EA, PSE eta PP) adostuta bi urterako lan baldintzak inposatu dizkiete, dekretu bidez.

Udal langileek alderdi politikoekin elkarriketak izatea eta 2002-03 inposaketa baliorik gabe uztea eskatu dute. Ez dute aldeko erantzunik jaso eta ondorioz ELA eta LAB ez dira negoziazio



Joan den egubakoitzean udal langileek egindako elkarretaratzeko irudi bat.

mahaian. Besteak beste, KPI + 600 euroko igoera soldatetan, lan-baldintzak berdintzea, "zabor-kontratuek" eragiten

duten ezegonkortasuna saihestea eta azpi-kontratazioak alde batera uztea aldarrikatzen dute udal langileek.

LABUR

Udako Euskal Unibertsitatera joateko edota euskara ikasteko Udalaren dirulaguntzak

Bergarako Udalak Udako Euskal Unibertsitatera edota euskara ikasteko barnetegietara joaten diren ikasleei dirulaguntzak eman go dizkie aurten ere. Dirulaguntza jasotzeko interesa dutenek Udaleko Euskara Zerbitzura (943 77 91 66 telefonoa) jo dezakete.

Kike Amonarrizek lan munduan euskararen presentzia aztertuko du egunean

Kike Amonarriz soziologoak *Lan munduaren giltzak zabalduko al du euskararen etorkizunaren atea?* izenburuko hitzaldia egingo du datorren egunean, hilaren 17an, Miguel Altunako aretoan, 18:00etan.


Bedelkarrek antolatutako pailazo emanaldia eta zozketa egubakoitzean, ekainaren 18an

Bedelkar dendarien elkarteak antolatuta, Potxin eta Patxin pailazoen emanaldia izango da ekainaren 18an San Martin plazan, 19:00etan. Egun horretan Bedelkarreko dendetan erosketak egin dituztenen artean zozketa egingo da.

- L** Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- L** Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- L** Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaizto motorraren azterketa teorikoa 16 urte bete aurretik!
Eta autoarena 18 urte bete aurretik!

943 76 16 63 BERGARA



ARRAÑAGA

A U T O E S K O L A

GAZTEAK/ Hitzaldiak, bideo emanaldiak, kontzertuak eta antzerkia izango dira

Gaztetxearen 4. urteurrena ospatzeko ekitaldiak

E.M.


Bergarako gaztetxeak laugarren urteurrena bete du aurten. Hori dela eta, hainbat ekitaldi iragarri ditu Gazte Asanbladak datozen egunotarako.

Gaur, egubakoitza, Surfin Kaos eta Lor taldeekin kontzertua izango da gaztetxean, 22:30ean. Zapatuan, berriz, mahai-futbol eta ping-pong txapelketak jokatu dira 16:00etan eta arratsaldean zehar grafiti eta mural erakusketa izango da San Martin plazan.

ANTZERKIA DOMEKAN

Interruptus taldeak *Baso etilikov* antzezlan eskainiko du domekan, hilaren 13an, 19:30ean. Eta astelehenean bideo emanaldia izango da gaztetxean, 19:00etan: *The filth & The fury* filma eskainiko da.

Martitzenean, gaztetxearen laugarren urteurrena ospatzeko, gaztetxearen hustea egin zuteneko eta gazte lokalaren gaineko aurkezpen bideoa eskainiko dira, 18:00etan. Ondoren, *Zer da gaztetxea?* izenburuko kafe tertulia.



Gaztetxeak lau urte bete ditu kartzela zaharreko lokalean.

Eguaztenean, berriz, www.astindu.org webgunearen aurkezpena egingo dute, 19:00etan. Eguenean, Itoizko Soli-

darioen eskutik bideo emanaldia eta hitzaldia egongo dira, 19:00etan. Hurrengo aste bukarran ekitaldi gehiago izango dira.



'Bergara Hiria', Ferrerasentzat

Javier P. Fdez. Ferreras bizkaitarrak lehen saria irabazi du Bergara Hiria Argazki Lehiaketan, koloreetako eta zuri-beltzeko kategorietan. Aipatutako bi kategorietan Jose Agustin Gurrutxaga izan da herriko onena, *El segador* eta *Paisaje* lanei esker, hurrenez hurren.

Lehiaketan 165 argazki jaso dira. Sari banaketa datarren egubakoitzean, hilaren 18an, egingo da kultura etxean, 20:00etan. Lan onenen erakusketa ekainaren 10etik 20ra bitartean izango da ikusgai Errotalden. /E.M.

San Antonio jaiak, zapatuan eta domekan

E.M.

San Antonio auzoko jaiak ospatuko dira asteburuan. Bihar, zapatua, Honorio Agirregabiria Txirindulari Saria jokatu da, 10:00etan hasita, eta arratsaldean, txupinazoa, kanpai hotsak eta buruhandiak izango dira, 18:30ean. Ondoren, 20:00etan, San Antoniori eskainitako bederatziruena izango da ermitan,

Toki-Eder plazan. Gauean, rock kontzertua egongo da, Arrasateko Dolce Vita eta Never Surrender taldeekin, 22:30ean.

Domekan, San Antonio egunean, Txistulari Bandarekin kalejira 09:00etan, herri meza 10:30ean eta eguerdian *luncha* Gure Ametsan. San Joxepeko abesbatza ere izango da bertan. Arratsaldean, Josu eta Jokin trikitilariak ari tuko dira.

LABUR

Saharako emakumeen gaineko hitzaldia izango da martitzenean, kultura etxean

Komite Internazionalistak taldeak antolatuta, Fatma Galiak Saharako emakumeen gaineko hitzaldia egingo du martitzenean, hilaren 15ean, kultura etxean, 19:30ean. Te dastatzea ere izango da. Komiteek Sahararen astea ospatuko dute hilaren 14tik 19ra.



Galtzagorri saria, Aranzadikoentzat

Aranzadi Ikastolak eskuratu du Galtzagorri saria. Ikasleek emandako botoen arabera, Gazte Literatur Saria banatzen da eta botoak ematen dituzten ikastetxeen artean Pariserako bidaia zozketatu da aurten. Aranzadikoak joan den egunean izan ziren Diputazioan saria jasotzen. Parisera bidaia, berriz, ekainaren 26tik 30era egingo du 34 lagunekoko taldeak.

CRISTINA

Eskaintza berezia

KAMISETAK eta
CAROCHE PRAKAK
%20 eta %30

Arriuriaga z/g - Tel.: 943 76 03 04 - BERGARA
Astelohen goizetan zabalik

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txixizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

Mujika
gozotegia



Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua
Zerbitzu publikoa eta
era guztietako kargak

MINGAINARITIRAKA



**Mari Kruz
Iparragirre**

MARI KRUZ HARATEGIKOIA

Ormaiztegiarra den arren, urte asko daramatza Mari Kruzek Antzuolan bizi izaten, haraxe ezkondu zen eta. Orain dela 25 urte harategia jarri zuen Antzuolan, senarrarekin batera; orain dela lau urte, berriz, Bergaran jarri zuten beste harategi bat.

Antzuolako ala Bergarako bezeroak dira exigenteagoak?
Nik uste dut bietan direla antzerakoak bezeroak; dena dela, nik esango nuke, exigenteak baino gehiago, euren elikaduraz arduratzen den jendea dela.

Okelarik gustukoena?

Lepoaldea.

Zela prestatuko zenuke lepoaldea?

Gisatua edo xerratan.

Sukaldari ona izango zara, ezta?

Bada, ez dago ondo nik neure burua goraiatzeko, baina, bai, sukaldari ona naizela esaten didate.

Bertako produktuei garrantzia handia ematen die jendeak?

Bai, jakina; guk bertako baserritarrei erosten dizkiegu txahalak; horrela, gainera, baserritarren biziraupena sustatzen dugu.

Arraina gustatzen zaizu?

Asko gustatzen zait, batez ere, erreboiloa. Jatetxeetan, normalean, arraina eskatzen dut, etxean nahikoa okela jaten dugu eta.

Zure lanean, zer da gehien gustatzen zaizuna?

Jendearekin lortzen den konfiantza eta harremana.

Eta gutxien?

Ordu asko sartu behar direla harategian.

Denbora librean zer egitea gustatzen zaizu?

Senarrarekin egun-pasa joatea.

Euskal Herriko txoko bat?

Hondarribia.

Liburu bat?

Kutsidazu bidea, Ixabel, Josean Sagastizabalena.

Animali bat?

Txakurra.

Zapore bat?

Kafearena.

Loteria tokatuz gero, zer egingo zenuke?

Ez dut horrelakorik espero, hortaz, hobeto ez pentsatzea.

Bukatzeko, amets bat?

Senarra eta seme-alabak zoriontsu ikustea.

AINTZANE IRIZAR

BERGARARRAKMUNDUAN

MAITE IRIGOIEN

39 URTE / MERKATU IKERTZAILEA / BARTZELONAN BIZI DA

“Gu baino formalagoak, serioagoak, dira katalanak; ez dira gu bezain espontaneoak”

AINTZANE IRIZAR

Hogeita bat urte zituela joan zen Bergararik kanpo bizi izatera Maite. Madrilera joan zen lehendabizi, ikastera; Donostian hasi zituen psikologiako ikasketak, eta Madrilen egin zituen azkeneko bi ikasturteak; “alde bate-tik, EHUn nik egin nahi nuen espezialitatea EHUn egiteko aukerarik ez nuelako joan nintzen Madrilera; eta bestetik, aldatzeko gogoia nuelako, aldatu eta zerbait ezberdina bizi izateko”, azaldu digu Maitek. Gero, hantxe lana topatu zuen eta, guztira, bederatzi urte egin zituen Madrilen bizi izaten.

Madrilen zegoela, bidaiari asko egiten zituen Maitek Bartzelonara, lan kontuak zirela eta. Bidai horiei esker ezagutu zuen gaur egun bere senarra dena. Horregatik, hain zuzen, joan zen Bartzelonara bizi izatera; maitemina nagatik joan zela esan daiteke.

MERKATUAK IKERTZEN

Zortzi bat urte daramatza Bartzelonan bizi izaten; merkatu ikerketaren munduan lan egiten du Maitek. Esan bezala, ezkondu dago eta semetxo bat dauka, Medir. Hiru urte dauka Medirrek; horren izen bereziarekin, zer esan nahi duen galdetu diogu: “Bartzelonan oso ezaguna da Medir Santua, eta horregatik jarri genion izen hori”, diosku Maitek. Dena dela, katalanez ez dute irakurtzen den bezala ahozkatzen izena. “Katalana da Medir, duda barik, baina Realekoa da, hori oso garrantzitsua da”, azpimarratu du Maitek.

Bartzelonan oso ondo bizi dela kontatu digu Maitek: “Egia esan, ni beti bizi izan naiz ondo, toki guztietan; azken baten, jarrera kontua ere bada”. Bartzelonaren alde onak zerrendatzen hasi zaigu eta zerrenda benetan luzea egin digu: “Klima zoragarria dauka, Mediterraneoan dago, Pirinioetatik gertu, jende jatorra dago...”.

*“Nire semeak,
egunen baten,
bikotekide
euskalduna topatzea
nahiko nuke”*

HASIERAN, HARRITUTA

Bartzelonara bizi izatera joan zenerako, Maitek nahiko ondo ezagutzen zuen hiria; izan ere, hantxe bizi zen Donostiako bere lagun bat.

Hala ere, kostatzen zitzaien pixka bat Bartzelonara egokitzea. Kontatu digunez, katalanen izaerak, adibidez, asko harritu zuen Maite: “Gu baino formalagoak, serioagoak, dira; ez dira gu bezain espontaneoak. Afari batean, esaterako, ez dira inoiz kantuan hasiko; oso kantari onak izan daitezke, baina, kantuan egiteko, koro bat osatuko dute eta antolatutako kantaldi baten kantatuko dute”. Ohitura ezberdin asko dituzte, gainera: “Katalanek lagunak

bakarrik agurtzen dituzte; bizilagunek ere ez zaituzte agurtzen; ohitura kontua da, beste barik, baina hasieran harritu egiten zaitu”.

Bartzelonak, hiri handi bat den heinean, aukera politik eskaintzen dituen arren, Bergara bezalako herri txiki bateko bizimoduaren hutsunea nabaritzen du Maitek: “Orain, batez ere, ume txiki bat dudanez, gure txikitako bizimodua eta gaur egun nire semeak duena alderatzen ditut; herri txiki baten umeak izan dezakeen askatasuna eta denbora aprobetxatzeko duzun aukera ez dituzu hiri handi baten”, diosku Maitek.

Etorkizunaren gainean galdetuta, argi dauka Maitek Bartzelonan jarraituko duela; hala ere, bere semearendako bestelako planak dauzka: “Medirrek bikotekide euskalduna topatzea nahiko nuke; horrela, zahartzen naizenean, Euskal Herrira bisitan joateko aitzakia ona izango nuke”.



OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 Zubillaga 10
BERGARA OÑATI
943 76 45 53 943 78 24 13

IRURAK MARGOAK
DISEINUA, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32



943 76 20 61
BERGARA



Mikel Labaka, Nielka Iburguren, Amaia Azpeitia eta Irati Fernandez izan ziren Euskadiko Txapelketan.

BERGARA IGERI ELKARTEA

IGERIKETA

Bergara Igeri Elkartekoak ondo Euskadiko Eskolarteko Txapelketan

Nielka Iburgurenak bigarren postua lortu zuen 100 metro bular estiloko proban

USOA AGIRRE

Bergara Igeri Elkarteko Nielka Iburguren, Mikel Labaka, Amaia Azpeitia eta Irati Fernandezek parte hartu zuten Euskadiko Eskolarteko Txapelketan. Orokorrean, emaitzak onak izan ziren.

Amurrion (Araba) jokatu zen maiatzaren 29an eta 30ean Euskadiko Eskolarteko Igeri Txapelketa. Bergara Igeri Elkarteko lau neska-mutikok parte hartu zuten probetan, eta emaitza onak lortu zituzten. Nielka Iburguren aritu zen ondoen: 100 metro bular estiloko proban bigarren sailka-

tu zen; estilo horretan Euskadiko txapeldunorde dugu, beraz, Nielka. 200 metro bular estiloko hirugarren sailkatu zen eta 400 metro estiloetako proban, berriz, laugarren postua eskuratu zuen.


Mikel Labaka laugarren sailkatu zen 100 metro bizkar estiloko proban; 200 metro estiloetan eta 100 metro tximeleta estiloko proban, berriz, seigarren postua lortu zuen. Irati Fernandezek zortzigarren amaitu zuen 100 metro tximeleta estiloko proban eta bederatzigarren 100 metro bular estiloko proban. Amaia Azpeitia, azkenik, hamargarren sailkatu zen 400 metro libreetan eta hamabigarren, berriz, 100 metro libreetan.

TXANTXIKU SARIA

Ekainaren 5ean jokatu zen Oñatin Txantxiku saria. Bergara Igeri Elkarteko txikienek parte hartu zuten proba horretan, benjamin eta alebin mailakoek, hain zuzen ere. Guztira, Bergarako 18 igerilari gazte izan ziren Oñatin.

Txikienek probak amaitu dira, orain nagusien txanda da. Infantil mailako igerilariak Gipuzkoako Txapelketa jokatu dute ekainaren 19an eta 20an, eta ekainaren 26an eta 27an Euskadiko txapelketa izango dute. Junior mailakoek, berriz, Gipuzkoako txapelketa jokatu dute uztailaren 3an eta 4an, eta Euskadiko uztailaren 10ean eta 11n.

FOTOKIROLA



Zabaleta garaile Gorlako igoeran

Espero zen moduan Aitor Zabaleta izan zen azkarrena Gorlako XIV. Igoeran, joan den zapatuan. Zabaleta BMW Lola Diamante autoarekin nagusitu zen igoeran eta 02:28:27ko denbora nahikoa izan zuen ibilbidea egiteko. Montxu izan zen bigarrena (02:39:15); hirugarrena, berriz, Jesus Santamaria (02:39:23). Bestalde, antolatzaileek ez zioten Vilariñori parte hartzen utzi, eta horrek zeresana eragin zuen. /U.A.

San Antonio txirrindulari saria jokatu da zapatuan

E.M.


Bihar, zapatua, 68. San Antonio Txirrindulari Saria jokatu da. Lasterketa 10:00etan hasiko da eta bertan lehen eta bigarren urteko kadete mailakoak izango dira lehian. Proba 11:45ak aldera amaituko da, Espoiko helmugan, txirrindulariek ibilbideko 70 kilometroak bete ondoren. Ur kolektoreko lanak direla eta, Ozaeta, Martoko eta San Antoniotik iritsiko dira txirrindulariak Espoiko helmugara.

Bergarako partaidetzari dago-kionez, Joseba Muguruza, Asier Penabad, Iban Caballero eta Unai Markiegi (Sumofic taldekoak) izango dira irteeran. 120 bat txirrin-

dularik hartuko dute parte.

Laugarren urtez, San Antonion lasterketak Honorio Agirregabiria zenaren izena eramango du. Haren oroimenez jokatu da lasterketa, herriko txirrindularitzaren alde lan bikaina egia baitzuen Agirregabiriak.

San Antonion lasterketa 1945ean jokatu zen aurreneko aldiz eta orduan Enrique Muguruza izan zen irabazlea. Harrezkero, palmaren bikaina izan du probak. Besteak beste, Jesus Loroño (1955), Anton Barrutia (1957), Jesus Arantzabal (1962), Jose Mari Errandonea (1964), Santi Lazkano (1967), Jose Nazabal (1973), Antxon Lekitona (1979), Abraham Olano (1986) eta Unai Osa (1991) izan dira irabazle.



Gorka Izagirre azken txapelduna, Enrique Muguruza lehenbiziko irabazlearen ondoan.

ARETO FUTBOLA

A Ze Flaxa eta Errotagain taldeek ligako finala jokatu dute domeka eguerdian

A Ze Flaxa eta Errotagain taldeek ligako finala jokatu dute domekan, ekainak 13, Labegaraian, 11:30ean. Kopako finalean, Pirulotarrak taldea 4-1 nagusitu zitzaion A Ze Flaxari domekan. Xabier Martinez (Pirulotarrak) izan zen partiduko onena.

PILOTA

Oruesagasti eta Larrañaga Ibarreko Lau t'erdiko Pilota Txapelketan bigarren

Debagoieneko kirol txapelketa zirkuituen baitan Lau t'erdiko Bina-kako Pilota Txapelketa jokatu zen Elgetan. Igor Oruesagasti eta Joseba Larrañaga bergararrek jokatu zuten finala, Juantxu eta Uriarteren aurka. Azken horiek eraman zuten txapela; 22-18 irabazi zieten bergararrei.

MENDIA

Hamaika bergararrek parte hartu zuten Hiru Handiak mendi ibilaldi ospetsuan

Igor Urisabel, Aitor Elkorro, Gorka Areitio, Haritz Anduaga, Luis Anduaga, Cesar Fidalgo, Enekoitz Gabilondo, Roberto Limeres, Igor Unamuno, Xabier Lijo eta Jose Manuel Cotek parte hartu zuten Hiru Handien mendi ibilaldian, joan den asteburuan. Urisabel, Areitio, Fidalgo eta Anduaga aita-semeak iritsi ziren helmugara.

FUTBOLA

Laugarren amaitu dute neskek futbol zortziko Gipuzkoako Txapelketa

Gipuzkoan futbol zortziko txapelketa egiten zen lehenengo urtea izan da aurtengoa, eta oso gustura daude emaitzarekin

USOA AGIRRE

Joan den aste bukaeran jokatu zuten neskek futbol zortziko Gipuzkoako Txapelketako azken partidua, Eibarko taldearen aurka. Laugarren postuan amaitu dute txapelketa; parte hartzen zuten lehenengo urtea izanda, gustura daude emaitzarekin.

Aurten lehenengo aldiz antolatu dute Gipuzkoan futbol zortziko nesken txapelketa. Lehenengo urte honetan bikain aritu da Bergarako nesken taldea, laugarren postuan amaitu dute-eta. Mikel Fernandez Pope entrenatzaileak zera esan digu: "Oso pozik gaude emaitzarekin, lehenengo urtea izateko oso ondo dago. Kontuan hartu behar dugu, gainera, gure taldean 12-15 urte arteko neskek zeudela eta beste talde batzuetan 17 urtekoak ere bazeuden".

Irailean hasi zuten txapelketa 18 taldek, bi multzotan banatuta. Bergarako neskek beraien multzoko lau onenen artean gelditu ziren eta multzo bakoitzeko lau onenek (zortzi, guztira) Txapelaldun Fasea jokatu zuten. Eibartarrak taldeko nesken aurka jokatu zuten azken partidua Bergaran eta 2-1 irabazi zuten. Horren ondorioz, laugarren postuan amaitu dute txapelketa. Irabazlea Altzako taldea izan da; bergararren aurretik Añorga eta Zarautz sailkatu dira.

LEHENENGO TXAPELKETA

Aurten lehenengo aldiz antolatu dute nesken futbol zortziko txapelketa Gipuzkoan. Guztira 18 taldek parte hartu dute txapelketa eta Gipuzkoako gain, Arabako Gasteiz Cup taldeak ere



Argazkian, kadete mailako nesken futbol taldea Mikel Fernandez Pope entrenatzailearekin.

Parte hartzen zuten lehenengo urtea izanda, gustura gelditu dira neskek emaitzarekin

parte hartu du. Bergarako neskekin batera zeuden, bigarren multzoan, Aretxabaleta, Antzuola, Eibartarrak, Elgoibar, Urki, Gasteiz Cup, Zumaiako eta

Zarautz taldeak. Beste multzoan Dunboa-Eguzki C, Touring, Altza, Añorga, Aldapetarrak, Intxaurdi, Luberrri, San Ignazio eta Zarautz B taldeak zeuden.

Altza, Añorga, Zarautz, Eibartarrak, Bergara, Gasteiz Cup, Zarautz B eta Luberrri taldeek jokatu zuten azken ligaxka, Txapelaldun Fasea. Azkeneko jardunaldira arte bosgarren postuan zegoen Bergarako taldea, Eibarkoekin berdinduta. Baina, azken jardunaldian lortutako garaipenaren ondorioz, laugarren postua lortu zuten. Aste

Altzako taldeak irabazi du Txapelaldun Fasea izeneko azken ligaxka

honetan egin dute azken entrenamendu saioa Bergarako neskek eta orain afaria egiteko asmoa dute, egindako denboraldi ona agurtzeko.

PILOTA

Debarroko Txapelketan finalerako bidean

Debarroko Txapelketako finalerdietako lehenengo partidua jokatu zuten martitzenean bergararrek. Gazteetan, Mugu-ruza eta Azurmendik galdu egin zuten eskoriatzarren aurka, 8-22. Nagusietan, Mugu-ruza eta Gutierrezek irabazi egin zuten Elgoibarko bikotearen aurka, 22-8. Datorren astean jokatuko dituzte itzulera-ko partidua.

IPINTZAKO TXAPELKETA

PARTIDUAK

EGUBAKOITZA, 11 (SENIOR NESKAK)

20:00: Epa Gindis - Baztangak
20:00: Ogizun - Plaust
21:00: A Willy-Willy - Potzu ta Zapaburuak
21:00: Ou Pitxu Ou - Pentol's Team

ZAPATUA, 12 (SENIOR MUTILAK)

09:00: La Juve - Txokokuak
10:00: Beti K.A.B. - Fo-Fo-Fo
11:00: Angiola - Ilari
12:00: The Parpol - Indar Gorri

ASTELEHENA, 14 (SENIOR MUTILAK)

19:00: Getokuak - Fo-Fo-Fo
20:00: Mongitxurak - Indar Gorri
21:00: La Juve - Ilari

MARTITZENA, 15 (SENIOR MUTILAK)

19:00: Mongatxurak - The Parpol
20:00: Ezdaku - Beti K.A.B.
21:00: A Ze Flaxa-Guipuzcoana - Gore

EGUAZTENA, 16 (SENIOR NESKAK)

20:00: Ogizun - Antzuola
20:00: A Willy-Willy - Baztangak
21:00: Ou Pitxu Ou - Plaust
21:00: Pentol's Team - Potzu ta Zapaburuak

EGUENA, 17 (BETERANOAK)

19:30: Mongatxurak - Txipiron
19:30: Guipuzcoana - Ezinleike
20:30: Bildurbarek Opel-Lam - A Ze Flaxa
20:30: Arloteak - Canalejas

ARETXABALETAN RESIDENCIAL BEROA



Orain aukeratu egin dezakegu!

- Duplexak terrazekin
- Atikoak terrazekin
- Logelâ bateko eta bi logelako apartamentuak
- Hiru eta lau logelako etxebizitzak

Informa zaitetz Aretxabaletako gure bulegoan (obra aurrean)
Belorrieta auzoa 13. Tel. 943 711 770

EUSKAL ASTEA 2004



San Martin Agirre
herri eskola

Kurtsoko azken asterako, gure kulturaren ezagupena giro atsegin batean zabaldu eta berarekin lotura afektiboa garatzen joateko, jarduerak antolatu ditugu San Martin Agirre herri eskolan.

Bide batez, zuei opor ederrak opatzeko aprobetxatu nahi dugu tarte hau.



EGITARAUA

Ekainak 16: **Txupinazoa**

Pregoa

Horma-irudiak

Ekainak 17: **Jaialdia**

Ekainak 18: **Pilota Txapelketako finalak**

Ekainak 21: **Jolas tradizionalak**

Ekainak 22: **Euskal dantzak**

Ekainak 23: **Txangoa**



SAN MARTIN
BERGARAKO

IPINTZA
IKASTETXE

M. ALTUNA
PUBLIKOAK



Sinpletasunaren xarma.
Txikitasunean handi.



Ibargarai 36-38 BERGARA. Tel./faxes: 943 76 70 58



Gehixago eta hobeto programaren barruan Bergarako Udaleko Euskara Zerbitzuak argitaratua. 23. alia

IEPA LAGUNOK!

Zer moduz pasau dozue astia?
Ni primeran ibilli naiz mendixan bedar fresko-freskua jaten. Gogoratzen dozue gaur lehiaketiaren eguna dala? Ba, egin gaurko ekarri dittudan ariketak eta eruan martitzen goizerako zuen ikastetxeko idazkaritzara. Animo eta zorte on!!



URREZKO ARAUAK

- Goizian ikusi zaittut.
- Goxokiak baleude, aintxintxika etorriko lirake.
- Goizian ikusi detsut.
- Goxokiak baleude, aintxintxika etorriko ziren.



LOTU BIKOTIAK

Lotu testua marrazkixekin:

1. Aurten oporretan hondartzara jun geinke.

A




4. Eguraldi ona egingo baleu, mendira juango giñake.

E



2. Goizian amarekin erosketak egitten ikusi zaittut.

B



5. Goxokixak ekarriko banittu, harek be aintxintxika etorriko lirake.

F



3. Ni be juan neike bakarrik etxera, haundixa naiz eta!

D



6. Etxeko giltzia galduko balitzat, gurasuak haserretu egingo lirake.

G



JOLASA

Ekarri zeinke pelotia?


Jokalari batek pelotia berak nahi daben tokira botako dau eta beste partaidiari galdetuko dotsa: "Ekarri zeinke pelotia?". Galdera honekin batera jua-
n-etorrixa zela egin biharko daben be esango dotsa.

Adb: lau hankatan, hanka bakar baten gaiñian, atzerunzka...

Bigarren jokalarixa lau hanketan edo hanka baten

gaiñian edo atzerunzka edo beste jakalarixak esaten dotsan moduan pelotia dagoen tokiraino jua, pelota hartu eta berriz be hasierako puntura bueltako da. Ondoren, bera izango da pelotia jaurti eta galderia egingo dabena.





10 bidaiak zozketan

K a r i b e
T u n i s i a
I t s a s b i d a i a
D u b l i n
F i t e r o

Ekainaren 12tik aurrera



Laguntzailea:  **Viajes Eroski**
Bidalak
Kalitatea Bermatuta

Euskaldunok behar dugun **berria**

2004ko UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

Eshaintza:

EUSKALDUNTZE maila guztiak, ALFABETATZE, EGA eta HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK.

Erritmoak:

Egunean 4-5ordu, goizez.

16 urtetik gorakoentzat.

Ikastaroaren iraupena:

Ekainaren 28tik uztailaren 23ra arte.

Bulego ordutegia:

Goizez: 08:30-12:30 • Arratsaldez: 14:30-18:30.
Ostiraletan: 08:00-15:00.

Matrikulaldia:

Ekainaren 14tik 25era arte.



udan freskura beharko duzu... euskara beti!



BERGARAKO Udal Euskaltegia
www.udaleuskaltegiak.net

BERGARAKO Udal Euskaltegia
Zabalotegi 13-20570 BERGARA
Tel./Faxa: 943 76 44 53

berg.eusk@udal.gipuzkoa.net • berg.euskudal@euskalnet.net

FOLKLOREA/ Garai bateko erromerietako giroa berreskuratzea da antolatzaileen helburuetako bat

'Bergara dantzara!' erromeriak 500 bat dantzari bilduko ditu bihar, zapatua

EDU MENDIBIL

Bergara dantzara! egun osoko erromeria ospatuko da bihar, zapatua, 11:00etatik iluntzera arte. Biharko jaiak helburu bikoitza dauka: erromerietako giroa bizirik dagoela aldarrikatzea batetik eta, bestetik, adin guztietako dantza-zaleak elkartzea.

Orain dela bi urte *Jalgi hadi dantzara* erromeriak izandako arrakasta ikusita, Abarka dantza taldeak, Xamatx taldearen laguntzaz, *Bergara dantzara!* jaialdia antolatu du biharko. Antolatzaileek 500 bat dantzari biltzea espero dute biharko erromerian. Juan Mari Baseta Abarka dantza taldeko presidentearen esanetan, "orain dela bi urte oso harrera jaso genuen, 400 bat lagun etorri ziren eta eguraldiak bakarrik huts egin zigun. Eguraldi kaskarra izan genuen orduan. Ea bihar giro hobea egiten duen eta jaiaz disfrutatzeko aukerarik daukagun. Bergarako jendearentzat zein kanpotik etortzen direnentzat egun ederra izatea nahi dugu. Gipuzkoa eta Bizkaiko hainbat talde etorriko dira; 500 bat dantzari elkartzea da gure asmoa. Edozein modutan, azken momentura arte ezin da jakin zenbat jende etorriko den".

ANTZINAKO JANTZIAK

Dantza-zale, dantzari eta musikariei harrera egingo diete



Orain dela bi urteko erromeriak erantzun ona izan zuen. Laurehun bat lagun elkartu ziren orduan.

11:00etan, Seminarioan, eta ondoren herri osoan zehar kalejirak egingo dituzte, bi taldetan banatuta: batzuek Matxiategi aldera joko dute eta besteek Espoloi aldean eta herri barruko kaleetan barrena izango dira dantzan. Antolatzaileek zera eskatu diete partaideei: ahal izanez gero antzina baserriarren erara jantzi-

Aurrerantzean urtero egin nahi dute 'Bergara dantzara!', Pazkoen aurretiko astean

ta etortzeko, garai bateko erromerietako giroa berreskuratzeke asmoz. Jantzirik dotorenak dituztenendako sariak izango dira bihar.

Esandako moduan, biharko dantza saioetan ahalik eta jende gehienak parte hartzea da antolatzaileen asmoa. Hori dela eta, azken asteotan Juantxo eta Jani-

re Urbieta aita-alabak dantza ikastaroak eskaini dituzte Bergaran. 60 bat lagunek hartu dute parte ikastaroan.

DANTZAK ETA HERRI BAZKARIA

Eguerdian, 13:30ean, San Martin plazan elkartuko dira partaideak eta han dantza ikuskizuna eskainiko dute. Ondoren, herri bazkaria izango da Seminarioko patioan. Oraingoan, 280 lagun inguruk egin dute bazkarirako izenematea. Bertara joateko interesa dutenendako azken txartelak salgai daude kultura etxean eta Barrenkaleko Dixula tabernan, 10 euroren truke.

ARRATSALDEAN, ERROMERIA

Arratsaldean, berriz, Epelde-Larrañaga eta Zabale-Berastegi trikitilariekin eta Konde eta Gari-koitx dultzaineroekin erromeria egingo da San Martin plazan, 18:00etan hasita. Eta, bukatzeko, triki-poteoa izango da herriko kaleetan, 20:00etan, jaiari bukaera emateko.

Juan Mari Basetak esan digunaren arabera, aurrerantzean urtero egin nahi dute *Bergara dantzara!* erromeria, Pazkoen aurretiko astean ahal izanez geroegiteko asmoaz. Basetak esandakoaren arabera, "horrelako erromeria dezente egiten dira Euskal Herriko zenbait tokitan gaur egun, arrakasta handiz gainera. Datorren ekainaren 26an, esaterako, *Jalgi hadi dantzara* jaiaren ekitaldi berria izango da Berrizen".

Musika Eskolaren Udaberriko Jai Kontzertua domekan Udal Pilotalekuan

E.M.

Musika Eskolako taldeak Udaberriko Jai Kontzertua eskainiko dute domekan Udal Pilotalekuan, 12:00etan. Aurten 20. urteurrena bete du Musika Eskolak, eta Regino Valleri omenaldia egingo diote.

Musika Eskolako Suzuki taldeak, Gazte Bandak, Akordeoi Orkestrak, Haurren Abesbatzak, Hari Taldeak eta Orkestra Sinfonikak hartuko dute parte kontzertuan. Amaieran, talde guztiek bi pieza eskainiko dituzte elkarrekin, Maite Aurrekoetxearen zuzendaritzapean: *Urdiruz* (Alfredo Gonzalez Chirlaque) eta *West side story* (Leonard Bernstein).

REGINO VALLERI OMENALDIA

Esandako moduan, Musika Eskolak 20. urteurrena bete du aurten.



Argazkian, Musika Eskolako Akordeoi Orkestra.

Hori dela eta, Regino Valle Musika Eskolako sortzaileetako bati omenaldia egingo diote domekan kontzertuan.

Gaur egun 510 ikasle dira

Musika Eskolan. Domekan, kontzertuaren aurretik kalejira egingo dute trikitixa eta txistu taldeek. Azkenik, herri bazkaria izango da Espoloi, 14:30ean.

LABUR

Ricardo Azkargortaren margo erakusketa Arrasateko Arregi galerian, hilaren 18ra arte

Ricardo Azkargortaren margo erakusketa ikusgai dago Arrasateko Arregi arte galerian (Maalako Errebala 8). Erakusketa ekainaren 18ra arte egongo da ikusgai, lanorduetan.

Itxurak izenburupean, Azkargortak paisaiaren gaineko hainbat lan zintzilikatu ditu Arrasateko erakusketan.

1960-80 hamarkada bitarteko musikarekin jaialdia zapatu gauerdian, Pol-Polen


Bergarako lagun koadrila batek musika jaialdia eskainiko du bihar, zapatua, Pol-Pol tabernan, gauerdian.

Lauzprobost lagun elkartu dira biharko musika jaialdira begira. Beraien asmoa 1960-80 hamarkada bitarteko hainbat kantu eskaintzea da.

Jardunek ikasturte amaierako jaialdia egingo du ekainaren 18an, Zabalotegin

Jardun elkarteak proiektuetan parte hartu duten gaztetxoek ikasturte amaierako jaialdia egingo dute datorren egubakoitzean, hilaren 18an, Zabalotegiko aretoan, 19:00etan. Trikitixa, antzerkia, bertsoak, magia eta beste hainbat ikuskizun izango dira. Sarrera doaneko izango da.

BONOFOTOA



Atari gutxi ditu aldapan dagoen kale horrek, baina ia denetan aldaba desberdinak daude. Zein da kale horren izena?

MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

BERGARAROSPETSUAK

Telesforo Monzon (3)


KOLDO PEREIRA

Francoren diktadura amaitzean, Espainiako agintariek Hegoaldera itzultzeko baimena eman zioten, 1977ko uztailaren 14an. Bere alderdikideek diziplina betetzeko agindu zioten, baina zera erantzun zien: "Erabat libre izanik, erakunde baten diziplinaren mende egonda baino gehiago egin dezaket". Handik egun batzuetara dimisioa aurkeztu zuen Bergarako herri-batzarrean.

Monzonen borroka-kantek (*Itziarren semea, Lepoan hartu...*) trantsizioa girotu zuten. Gogorra, atsegina, borroka armatuaren aldekoa, itxura dotorekoa, pixka bat xelebrea... Nazionalismo erradikalaren irudi mitiko bihurtu zen Monzon. Indar erreformistek eta nazionalismo moderatuak hauteskundeak irabazi ondoren hasi zuen Monzonek bere goraldia, 1977ko Askatasunaren Aldeko Ibilaldian.

Espainiako Barne Ministerioak zazpi aldiz eraman zuen auzitara, terrorismoaren apologia egin zuen akusaziopean. Ordurako, aldarrikatu ta zeukan bere lelorik ezagunena: "Oraingo gudariak lehengo gudarien ondorengoak dira".

Trantsizio garaian nazionalismo erradikalaren irudi mitiko bihurtu zen



BUA (ROMAN LARRABAGA)

GALDEDEBALDE

- 1.** Zein erakunde eman dio Mizpirualde Egoitzari kalitate ziurtagiria?
A/ Euskalit.
B/ DNV.
C/ Forum.
- 2.** Nor izan zen San Antonio Txirindulari Sariko irabazlea joan den urtean?
A/ Gorka Izagirre.
B/ Kepa Varela.
C/ Imanol Mendikute.
- 3.** Udaberriko Kontzertuaren zenbatgarren ekitaldia egingo du Musika Eskolak aurten?
A/ 25.a.
B/ 20.a.
C/ 17.a.



Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

OLAITZ AKIZUrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Olaitz!

Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: **1348an** / Galde debalde: **1-C, 2-A, 3-A.**



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Kas laranja edo limoia
2 litro.

0,94€

156 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



BEHEKO TABERNA

Menestra eta untxia dira gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74



GAZTELU
BURDINKI DENDA

Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

ARDATZA
Brikolajea

- | | |
|--------------------|-------------------------|
| Ateak eta zokaloak | Koadroak markoan ipini |
| Horma-armairuak | Era guztietako moldurak |
| Sarrailak | Apalak |
| Heldulekuak | Kaxoiak |

Masterreka 4-behea. Bergara. 943 76 18 93

ERRETRATUZAHARRA

BERGARA

Ollo-Kale futbol taldea, 1954

Ipintza futbol txapelketa jokatzeko ari da egunotan eta talde dezentek dihardute lehian. Uztailaren erdialdera jakingo dugu zein taldek irabazten duten, hainbat mailatan.

Alboko argazkia 1954. urtekoa da. Mende erdia igaro da; beraz, erretratu atera zenetik 50 urte igaro dira eta zori-tzarrez argazkiko hainbat lagun ez dira dagoeneko gure artean. Hala ere, haien lagunek ez dituzte ahazten eta argazki hau ekarri digute, oroigarri modura, eta bide batez gaztetako kontuak gogora ekartze-ko.

Argazkikoek Ollo Kale taldea osatzen zuten eta 1954ko Bergarako futbol txapelketan txapeldunorde geratu ziren, finalen Ozaetako Acero taldearen aurka galdu ostean. 18-19 urte izango zituzten orduan Ollo-Kale taldeko lagunak. Hara zeintzuk agertzen diren argazkian, ezkerretik eskumara:

Zutik: Xabi Larrion, Alfonso Garcia, Jose Aranguren, Jesus Ruiz de Azua, Manolo Munarriz, Joseba Askasibar eta Nartxi Begiristain.

Bigarren ilaran: Jose Antonio Imaz, Antonio Azkarate, Ignacio Alkorta, Jose Antonio Lazpiur, Roman Sito Larrañaga eta Patxi Azkarate.

Aurrean: Arturo Reglero, Angel, Cruz Mari Odriozola eta Isidro Etxaniz.



ADI, IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARARA (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

Argazkia: Xabi Larrion

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi
BERGARA

**OILAGORRA
TABERNA**

Barrenkalea 21 BERGARA



Bergara Errehabilitazio
Fisioterapia Zentroa

MASAJEAK ETA
ERREHABILITAZIOA

Hitzartutako aseguru berria:



LAGUN-ARO

Matxiategi 5
Tel.: 943 76 02 03/76 25 70

GABILONDO
INMOBILIARIA

Etxebizitzak, garajeak, lokal komertzialak,
baserriak, lur sailak...

Burdiñate BERGARA Tel.: 646 665 854
San Frantzisko 51, 1-D ELGOIBAR Tel.: 943 74 44 67



gizon & emakume

Barrenkalea 35
BERGARA

BIZKOTXOAK. ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono. 761051
R.S.I. 209374 - 55
BERGARA

Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2004eko ekainaren 11a / 205. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Denondako Kirol Jaia ospatuko dute bihar, Mankomunitateak antolatuta

AINZANE IRIZAR

Bihar, zapatua, Debagoieneko Mankomunitateak antolatuta, XII. Denondako Kirol Jaia ospatuko dute. Urtero ibarreko herri ezberdin batek hartzen du topaketa hori antolatzeko ardura, eta aurten, Antzuolari egokitu zaio. Udal Pilotalekuan izango da, 10:30ean hasita.

Ibarreko herri guztietatik etorriko dira biharko kirol jaira; guztira, Debagoieneko 60 bat ezindu fisikok eta psikikok hartuko dute parte.

Udal Pilotalekuan izango dira ekitaldiak, 10:30ean hasi eta 13:00ak arte. Boccia, eslaloma, goal-balla, badmintona, saskibaloia eta aerobika izango dira parte-hartzaileek egingo dituzten kirolak batzuk. Batzuk ohiko kirolak dira; beste batzuk, berriz, ezinduei egokitutakoak.

Eguerdi aldera, bestalde, luntxa izango dute parte-hartzaileek eta euren senitartekoek.

Ibarreko Udaletako kirol teknikariak ibiliko dira antolakuntza lanetan, baita hainbat begirale ere.

Mankomunitateak jarriko dizkie autobusak parte-hartzaileei



DEBAGOIENEO MANKOMUNITATEA

Iaz Oñatin egin zuten ezinduendako kirol jaia.

Antzuolara etorri ahal izateko, eta doan izango da zerbitzua.


HELBURUA, ELKAR EZAGUTZEA

Debagoieneko Mankomunitateak hiru kirol jai antolatzen ditu urtero garai honetan, eta halaxe egin

du aurten ere: gaur, egubakoitza, erretiratuendako jaia izango da Aretxabaletan; bihar, ezinduena Antzuolan eta aurreko zapatuan, berriz, umeena egin zuten Oñatin.

Kirol jai horien helburua da Debagoieneko herrietako jen-

deak elkar ezagutzea eta harremanak egitea; azken baten, ibararren batasuna bultzatu nahi du Mankomunitateak, kirolaren bitartez. Bide batez, ondo pasatzeko aitzakia ederra ere bada zapatuko jaia.



GOITBkoak frogak egiten

Antzuolan Goiena Telebista jartzeko hainbat froga egiten jardun dute oraingo astean. Altzeta baserriaren ondoan Eusko Jaurlaritzak duen antena-gunean antena berria jarri dute teknikariek; GOITBren seinaleak gainerako kateen seinaleei kalterik egingo ez diela ikusteko eta herrian seinalea ondo hartzen dela ikusteko egin dituzte frogak horiek. Froga horiek bukatu eta beharrezko tramiteak egin ondoren, GOITB ikusteko moduan egingo gara antzuolarrok. /A.I.

LABUR

Erretiratuek irteera egingo dute Gernikara

Ekainaren 21ean, astelehena, Gernikara joango dira erretiratuak. Junta Etxea bisitatuko dute han eta Lekeition bazkalduko dute. Ondarroara ere joango dira. Ekainaren 15ean, 16an eta 17an egongo da izena emateko aukera, 18:00etatik 19:00etara. 24 euro kostako da.

Gimnasia erritmiko erakustaldia, eguaztenean

Datorren asteko eguaztenean, hilak 16, gimnasia erritmikoko herriko neskek erakustaldia egingo dute Udal Pilotalekuan. Bergarako Ariznoa taldean dihardute gehienek, eta orain dela gutxi urrezko eta zilarrezko dominak irabazi dituzte Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketetan.

Udaletxeak udako ordutegia dauka irailera arte

Aurreko astean hasi ziren udaletxeko langileak udako ordutegiarekin. Goizez bakarrik zabalduko dute, 08:00etatik 14:00etara, hain zuzen ere. Irailera arte izango du ordutegi hori. Liburutegiak ez du oraindik aldatuko; ekain amaierara arte ohiko ordutegiarekin jarraituko du.

Kadete mailako pilotariak ibarreko txapeldun

Aitor Mendizabal, Aitor Jauregi eta Asier Longares Olalde elkarteko pilotariak Debarroko pilota txapelketako finalerdietarako sailkatu dira. Oraindik ez dute zehaztu noiz eta non jokatuko dituzten finalerdietako partiduak. Lehenengo fasean, Debagoieneko txapelketan, lehenengo postuan geratu dira, kadeteen mailan.

ELKARRIZKETA

LURDES ALBERDI/UDAL LIBURUTEGIKO ARDURADUNA

“Urtetik urtera ipuin hobeak aurkezten dituzte sariketa honetan”

Urtetero moduan, Patxiko Txerren ipuin sariketa antolatu dute Udal Liburutegiak eta Herri Ikastetxeak. Beste urtetan San Isidro egunean egin izan dute sari banaketa; aurten, berriz, hilaren 17an banatuko dituzte sariak.

Patxiko Txerren ipuin sariketa antolatu duzue zazpigarren aldiz. Zein da sariketa horren helburua?

Helburua da neska-mutikoen artean irakurtzeko eta idazteko zaletasuna bultzatzea. Esan bezala, zazpigarren urtea da sariketa hau antolatzen duguna, eta egia esan, urtetik urtera, ipuinen kalitatea gora doa; geroago eta ipuin hobeak aurkezten dituzte umeek. **Zeini zuzenduta dago?**

Herri Ikastetxeko ikasleei, Lehen Hezkuntzako neska-mutikoei, hain zuzen ere. Gainera, ikastetxeko arduradunekin elkarlanean antolatzen dugu sariketa. **Saritutako ipuinak liburuxka baten jasotzen dituzue, ezta?**

Bai; orain dela bi urte hasi ginen horretan. Aurten, gainera, osatzen dugun liburuxkaren ale bana emango diegu ikastetxeko ume guztiei, eta liburutegian ere hainbat ale jarriko ditugu. Gainera, parte hartzen duten ipuin guztiak koaderno baten jasotzen ditugu; koaderno horiek liburutegian eta eskolan egoten dira. **Sariketa honen izena, Patxiko Txerren, nondik dator?**

Patxiko Txerren eleberrri baten izenburua da. Antero Apolazak idatzi zuen liburu hori; herriko botikaria izan zen Antero. Urretxuarra zen arren, ama antzuolarra zuen eta Antzuolan bertan hil zen, 1908. urtean. Lehenengo aldiz, 1890. urtean argitaratu zuen eleberria, eta harrezkero, bost edizio izan ditu.

Antzuolan kokatuta dago, gainera, ipuin hori: Basalde auzoko familia baten gorabeherak kon-



“Saritutako ipuin guztiak liburuxka baten jasoko ditugu, eta ikasle guztiei emango diegu”

tatzen ditu, eta herriko hainbat toki aipatzen ditu. Liburutegian badugu liburu hori, irakurri nahi duenarendako. **Noiz egingo duzue sari banaketa ekitaldia?**

Datorren asteko egunean izango da, goizez, Herri Ikaste-

“Datorren asteko egunean, hilak 17, egingo dugu sari banaketa ekitaldia eskolan”

txean. Lehenengo, antzerki emanaldia egingo dute ikasleek, eta ondoren, sariak banatuko ditugu. Irabazleek liburu sorta bat jasoko dute; gainerako guztiei, berriz, lehen esan dugun moduan, saritutako ipuinekin osatutako liburuxka bana emango diegu.

JAIK

Ondarreko jaiak oraingo asteburuan

AINTZANE IRIZAR

Hamar urteko geldialdiaren ondoren, iaz berriro antolatu zituzten jaiak Ondarreko bizilagunek. Aurten ere antolatu dituzte Gorpuzti jaiak auzo horretan. Umeendako jolasak, afaria, erromeria, prozesioa..., ekitaldi ugari egongo da bihar, zapatua, hasita.

Bihar, zapatua, hasiko dituzte Gorpuzti jaiak Ondarre auzoan. Eguerdian, 12:00etan, ginkana jokoak egongo dira, Aiastui Peñak antolatuta.

Arratsaldean ere jolaserako aukera paregabea izango dute herriko umeek; 16:00etan umeendako hainbat jolas egongo dira, eta 18:00etan umeendako krossa.

Iluntzean, berriz, 20:30 aldera, auzotarrek afaria egingo dute Ondarreko plazan bertan. Ondoren, erromeria egongo da, eta bertaratzen direnei kafea banatuko diete antolatzaileek.

Domekan, berriz, 10:00etan hasiko dituzte ekitaldiak; etxakoak jaurtiko dituzte ordu horretan. 10:30ean, diana izango dugu herriko txistulariekin.

12:30ean izango da eguneko ekitaldi nagusia, prozesioa, hain zuzen ere. Aurten jaunartzea egin duten neska-mutikoei, apaizarekin batera, prozesioa egingo denean, parrokiatik Ondarrera; hantxe, Ondarreko plazan, ototzaldi bat egingo dute. Ondoren, 13:00etan, dantzari txikien saioa izango dugu. Dantza saioa amaitzen denean, berriz, salda banatuko dute herritarren artean. 13:30ean bukatuko dituzte aurten goiari ekitaldiak; zozketa egingo dute orduantxe.

SAN JUAN ETA SAN PEDRO JAIK

Datozen asteburuotan hainbat jai izango ditugu herrian. Alde batetik, ekainaren 23an, San Juan bezperan, hainbat ekitaldi egongo da herriko plazan: arbola jasotzea, dantza saioa, lore lehiaketako sari banaketa... Eta, aurten, gainera, San Juan sua ere egingo dute plazan. Uzarragan ekainaren 27an ospatuko dute aurten San Juan eguna. Kalebarrenen, ekainaren 26an eta 27an ospatuko dituzte San Pedro jaiak; San Martzial jaiak, azkenik, uztailearen 3an eta 4an.



Domekan, Gorpuzti eguneko prozesioa egingo dute, meza nagusiaren ondoren.

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki

MUEBLES
IGEA

Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan
espezializatuak

zabalo
IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. 943 76 60 89
Faxa: 943 76 60 14

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

**Eta orain....
GREMIOEN
KOORDINAZIOA**

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2004eko ekainaren 11a / 189. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldeggi • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

ETB Kantxa lau t'erdiko pilota txapelketa final-laurdenetan

IRATI AGIRREAZALDEGI


ETB Kantxa pilota txapelketa aurrera doa. Asteburu honetan eta hurrengoan finalerdiak jokatuko dira. Maila bakoitzean zortzi pilotari gazte daude. Kadeteen mailan Apezetxea da favorito, baina 23 urtez azpikoetan ez dago argi zeinek egingo duen aurrera.

Sailkapen fasea amaitu eta final-zortzirenak joan zen asteburuan jokatuta, ETB Kantxa lau t'erdiko txapelketako final-laurdenetan sartuak dira pilotari gazteak.

Maila bakoitzean zortzi pilotarik jardungo dute eta partiduak asteburu honetan eta hurrengoan jokatuko dira.

Gaur, barikua, gauean, kadete mailako hiru partidu izango dira jokoan, 21:30ean hasita. Yoldik Mendizabal izango du aurrez aurre, Etxeberriak Narbarte eta Iturriotzek, berriz, Legarreta.

Bihar, zapatua, berriz, 23 urtez azpikoen txanda izango da. Retegik Erroizenearen aurka jokatuko du eta Arretzek Mendizabalen kontra. 17:00etan hasiko da lehenengo norgehiagoka eta ETBk zuzenean eskainiko



AITOR LIZARRALDE

Zapatu arratsaldeko 23 urtez azpikoen partiduak telebistaz emango dituzte zuzenean.

ditu telebistaz bi partiduak. Gai-nontzeko final-laurdenak ekainaren 18an jokatuko dituzte, 20:00etan hasita.

FABORITORIK EZ

Zaila da txapela irabazteko faboritoa zein den esatea. Juan Luis

Ubera Ozkarbi Elkarteko pilota saileko arduradunari galdetuta zera esan digu: "Zapatuan jokatuko duten lau pilotariak maila ona dute eta euren jokoa orekatua da. Laurek daukate aurrera egiteko aukera, baina hori partiduan bertan erakutsi beharko

dute. Kadeteen mailan, berriz, Apezetxea iazko irabazlea ikusten dut txapela janzteko moduan".

Final-laurdenetan jokorik onena erakusten dutenek hila-ren 25ean jokatuko dituzte finalerdiak; azken partiduak, berriz, uztailearen 4an izango dira.



Arrandegia berriz zabalik

Azken hilabete honetan ez da arrainik iritsi Elgetako portura. Herrian dagoen arrandegi bakarra itxita egon da hilabetez, jabeak lagatzeko asmoa baitzuen. Orain, ordea, herritarrei zerbitzu hori emateko asmoz, uztailearen amaierara arte arrandegia berriz irekitzea erabaki du Kontxi Bolinagak. Ondoren erretiroa hartuko du berak, eta Kontxiren ordez Garbiñe Ormaetxea elgetarra arduratuko da arrandegiaz. Aldaketa hori irailetik aurrera izango da./I.A.

LABUR

Udal langileen lanuztea lan hitzarmena dela eta

Udal langileek bat egin dute lan hitzarmena negoziatzeko hainbat udaletan egiten dabil-tzan lanuzteekin. Joan zen barikuan ordu eta erdiko lanuztea egin zuten udaletxe-ko hamar langileek eta plazan elkarretaratzea izan zen. Langileek negoziatzeko mahala eratzea eskatu diete agintariei, baina haiek ez dute eskaria onartu. Aurki beste bilerara bat egitekoak dira eta eurek eskatutakoa bete ezean neurriak hartuko dituztela jakinarazi dute udal langileek.

Zaldibarko lau talderen kontzertua bihar gaztetxean

Kontzertua izango da bihar gauean gaztetxean, 22:00etan hasita. Guztira lau taldek jardungo dute, denak Zaldibarkoak: Santos Dolidos, Damu Dot, Disorders eta Rotenmeier, hain zuzen ere. Punk eta rock musika egiten duten talde hauetako batzuk aurrez ere izanak dira Elgetako gaztetxean. Bestalde, aurreratu digute datorren astean, ekainaren 19an, hain zuzen ere, beste kontzertu bat izango dela gaztetxean, baina oraindik zehazteke daude taldeak.

Jendea behar da Euskal Jai egunean umeak hartzeko

Ekainaren 27an, Euskal Jai egunean, 120 dantzari etorriko dira Elgetara inguruko herrietatik. Neska-mutilek herriko etxeetan bazkaltzea da asmoa, baina horretarako herritarrek prest azaldu behar dute umeak etxean hartzeko. Gauzak horrela, oraingoz 46 umerendako baino ez da tokia aurkitu, beraz, 80 dantzari inguru daude zain. Bi, hiru zein lau ume har ditzakete eta egunean bertan arduradunek dituzte bazkalorduan.

JAIK

Paella erraldoia egingo dute jaietan, 400 bat lagunendako

I.A.

Jaietan, zapatuan, herri bazkaria izango da plazan eta menua gertatua dute Jai batzordekoek: paella. Santandertik etorritako talde bat arduratuko da paella erraldoia gertatzeaz. Arroz kilo mordo eta osagai asko behar izango dituzte horretarako, 400 lagunendako izango baita paella hori.

Plazan bertan jendaurrean jardungo dute sukaldariek lanean eta eguerdian, bazkal orduan, doan banatuko diete bertaraten direnei. Hala ere, Jai batzordekoek jakinarazi dute eurek jatekoa, hau da, paella bakarrik banatuko dutela eta gainontzekoa norberak ipini beharko duela.

Bazkalosterako ere prestatua dute ekitaldirik. Herriko koardilen arteko jokoak izango dira plazan bertan, eta herritarrek bazkarian eta jokoetan parte hartzera animatu nahi dituzte.



Plazan egingo duten paella jaietako zapatuan banatuko dute.

ARETO FUTBOLA

Finalerdien atarian dago txapelketa

I.A.

Areto Futbol Txapelketako lehen faseko azken jardunaldia izan zen joan zen zapatuan jokaturakoa. Bertan, La Kokotxa taldeak 5-11 galdu zuen Viciosen aurka, eta Spias taldeak 6-7 Txapelaren kontra; Ariñiketan taldea, berriz, Makanakiri nagusitu zitzaion sailkapen faseko azken partiduan, hain zuzen, 9-1eko emaitza lortuta.

SAILKAPENKO PARTIDU BAT FALTA

Baina oraindik erabaki gabe dago finalerdia zein taldek jokatuko dituzten. Izan ere, lehen fasean atzeratutako partidu bat jokatzeko dago oraindik.

Txapela eta Komando Piperrak taldeen arteko norgehiagoka hori erabakigarria izan daiteke. Partidua ekainaren 12an jokatu da, 16:00etan.

Datorren asteko partidua amaitu arte zain egon beharko dugu, beraz, finalerdia zein taldek jokatuko dituzten jakiteko.

Oraingoz bi talde baino ez daude sailkatuta: Ariñiketan eta Vicios. Beste bi finalerdietarako hiru taldek dute sailkatzeko aukera: Txapela eta Komando Piperrak (partidu bat jokatzeko dutenak) eta Makanakiri.

Hiru talde horietatik Txapelak, nahiz eta jokatzeko daukan partidua galdu, seguru aski aurrera egingo du eta finalerdietarako sailkatuko da. Izan ere, beste taldeek baino gol gehiago egin ditu eta bere atean gutxiago jaso.

Finalerdia ekainaren 19an jokatu dira kiroldegi kanpoko kantxan. Finala, berriz, ekainaren 26an izango da. Baina oraindik zehazteke dago partidu horiek zein ordutan izango diren.

POLITIKA

Aralar: "Herritik herrirako jardun dugu eta jardungo dugu lanean"

I.A.

Udalean urtebete pasa ostean, balorazioa egin zuen Aralarrek astelehenean. Balorazio orokorra egin ostean, gobernu akordioaz jardun zuten eta baita Udaleko hainbat proiekturen gainean ere. Bide batez aurrerantzerako dituzten asmoen berri ere eman zuten.

Urtebete Udalean eman ondoren balorazio positiboa egin du Aralarrek, bai lortutako emaitzen gainekoa, baita egiten diharduen lanarena ere. "Herritik herrirako egiten den lanak Udalean gero eta pisu handiagoa duela uste dugu", esan zuten zinegotziek.

Balorazio orokorra positiboa den arren, gobernu akordioa dela eta zera adierazi zuten: "Gobernuan elkarrekin egoteak elkarriketa eskatzen du. Aralarrek ateak zabalik ditu elkarriketarako, espero dugu EAJ-EAk jarrera aldatzea. Pena da iaztik gurekin berba egiterik ez gura izatea. Ez dugu lortu bilerarik egiterik gobernu jardunaren gainean".

Baina elkarriketarik eza ez da gobernu akordioan topatu duten arazo bakarra. "Lanerako modu desberdinak ditugu. Erabaki garrantzitsuak ez dituzte gurekin adosten eta batzordeetan edo erabakiguneetan emandako informazioa publiko egitea ez dute ondo ikusten".

Azalpenen ostean proiektuen berri eman zuten: saihesbidea, Espaloia, eguneko zentroa, haur eskola, garraio publikoa, zaintza eta aisialdi zerbitzua, mendi museoa, kirol instalazioak eta babes ofizialeko etxeak.

Arazoak arazo, Aralarrek bere bideari eutsiko diola esan zuten gero: "Gure jokatzeko modua herritarrei gauzak argi eta garbi esatean oinarritzen da".

Horretarako herritarren partaidetza bultzatzea, Udala herriarengana gerturatzea, haren barne funtzionamendua hobetzea eta Udalean zabaldu duten aro berria etorkizunean sendotzea dira datozen urteetarako Aralarrek dituen erronkak.



Aralar alderdiak Udalean dituen hiru zinegotziek eman zituzten azalpenak.

ELGETA AUTOAK

Berraondokoa z/g ELGETA
T. 943 76 82 02 F. 943 76 82 98

Patxi Taberna

• Bokata goxoak • Plater konbinatuak
• Espezialitatea: Tripakiak

Salbador, 3 Tel.: 943 768 093 Elgeta

Aperribay, s.l.

Marmoldegi eta granitoak

Pagatza indus. z/g.
Tel. eta faxa: 943 78 90 21

20690 ELGETA

ILE APAINDEGIEN GIDA

IDOIA URBINA/ IDOIA ILE APAINDEGIKOA

'Adineko jendearen kezka nagusia ilearen erorketa da, eta horretarako tratamendu bereziak dauzkagu.'

Zenbat urte daramatzazu orrazten?

Hemezortzi urterekin hasi nintzen orrazten. Azken hamar urteetan nire ile apaindegian ari naiz lanean.

Modaren jarraitzaileak zara?

Bai, noski, nire lanerako ezinbestekoa da moda jarraitzea. Lan egiten dudan etxe-ek Euskadi mailan antolatzen dituzten ikastaroetara joaten naiz. Hala ere, bai kalean eta baita telebistan ere asko ikasten da, ideia berriak hartzeko balio du.

Zer-nolako bezeroak dituzu?

Denetariko bezeroak dauzkagu, gazteak, nagusiak, mutilak, neskek eta umeak.

Jendea ausarta al da?

Bai, jendea ausarta da. Neska gazteak dira ausartenak, kolore aldaketa asko egiten dituzte. Momentu honetan kolorea da gehien egiten dudana. Orain oso modan jarri da, adibidez, bi eta hiru kolore ematea ilean. Niri asko gustatzen zait, eta nire bezeroak gustura geratzen dira emaitzarekin.

Jendeak zaintzen du ilea?

Jendeak geroz eta garrantzi handiagoa ematen dio ilea zaintzeari. Bezeroek aholkua eskatzen didate eta lan egiten dudan etxeetako tratamenduak eskaintzen diz-



Idoia Urbina ile apaindegiko jabea.

kiet. Adineko jendearen kezka nagusia ilearen erorketa da, eta horretarako tratamendu bereziak dauzkagu.

Bezeroak ideiak garbi etortzen dira?

Normalean jendea ideia garbiekin etortzen da, normalean jendeak badaki zer nahi duen. Dena dela, beti galde-tzen dute zein orrazkera berri irten diren, eta batzuetan animatzen dira look-a aldatzera.

Ile apaindegia bakarrik edo beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen dituzu?

Ile apaindegiaz gain zerbitzu hauek ere eskaintzen ditut: makillajea, manikura, aurpegiaren garbiketa eta solariuma.

IDOIA

Espoloia 4 - Bergara
943 76 97 75

- Ile luzatzeak
- Aurpegiko larruzal garbitzea
- Solariuma

Aukera onenak

ADATS

Herri lagunak 4 - Bergara
943 76 49 51

- Solarium bertikala
- Europako azken tendentziak
- Zerbitzu berezi eta pertsonalizatua

AMPARO
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA

Boni Laskurain 2 - Bergara
943 76 43 07

- Txapelketetako Gipuzkoa taldekoak
- Kérastase tratamenduak
- Makillaje bereziak
- Abangoardia lanak

BEROTZI
PELUQUERAS

D. Fleming 5 - Bergara
943 76 53 15

- Sebastian promozio bereziak
- Trucco makillajea
- Londres eta New Yorkeko azken tendentziak
- Schwarzkopf kolorea

disdira

ile apaindegia
Masterreka 7 - Bergara
943 76 00 55

- Luzatzeak
- Azken joerak
- Ezkontzak
- Azken joerak koloreetan

ileak

Ozaeta 3 - Bergara
943 76 22 54

- Ilerako tratamenduak
- Teknika berriak
- Era guztietako orraskerak

IZARRA

San Pedro 23 - Bergara
943 76 29 72

- Luzatzeak, ile-kordak, rastak
- Ilerako bitxiak
- Solariuma dutzarekin

KIZKUR

Bolu 51 - Bergara
943 76 50 32

- Ile apaindegia eta estetika areto integrala
- Azken joerak
- Puntako markak

ORRASKI

San Pedro 6 - Bergara
943 76 47 01

- Ile apaindegi mistoa
- Kolore bereziak
- Ezkontzak
- Solariuma

Ostadar

Ibargarai 42 - Bergara
943 76 72 76

- Ile mozte eta kolore pertsonalizatuak
- Depilazioa eta makillajea
- Solariuma dutzarekin

Pepelu

Zurradero 2 - Bergara
943 76 43 07

- Gizonezkoendako
- Labanaz mozte
- Azken tendentziak
- Bizartegia
- Kolorea

Sanchez

Fraiskozuri 4 - Bergara
943 76 23 70

- Gizonezkoendako
- Labanaz mozte
- Klasikoa/moderno
- Bizartegia
- Kolorea